

Gure produktua bezeroengana iristeko eta haiek gure produktuaren berri jakiteko, lehenik eta behin, telebistan jarriko dugun iragarki baten bidez, gure produktua azalduko dugu, bere onurak azalduz eta beste maletekin alderatuta, maleta honek dituen abantaiak azalduz; honela edozeinek edukiko du gure maletaren berri. Bezeroak, gizon-emakume helduak izango direnez, iragarkiak berriak baino lehen jarriko genituzke; zehazki, eguardian eta gauean.

Gure bezeroak maila ekonomiko altua eta bidaiatzen dutenak izango direla kontuan hartuta, behin gure produktua azaldu ondoren, aireportuetan, tren geltokietan, helduak erabiltzen duten sare-sozialetan, facebook, esaterako, hotelak erreserbatzeko webguneetan etb jarriko ditugu "maleta jungle"-ren iragarkia. Nahiz eta bezero guztiak enpresetan ez duten lanik egitego, enpresetako lankide asko gure bezero izan daitezkeela aurreikusi dugu. Lana dela eta, asko bidaiatu behar izaten dutelako.

Horregatik, zenbait enpresetan ere publizitatea egingo dugu iragarkiak jarriaz eta gure produktua enpresa bertan azalduaz. Gainera, hasieran gure produktua bezeroen artean ezagutu arte, aireportu garrantzitsuetan, (Londresen, Bilbon, New Yorken...) stand moduko bat jarriko dugu, gure maleta bezeroak ikus dezaten eta edozein galdera edukiz gero, bertan egongo den pertsonari edozein galdera egin ahal izateko.